

HARRI ETA HERRI ETA ETIOPIA ARTEAN: MODERNITATEA EUSKAL POESIAN

Beñat Sarasola

Universitat de Barcelona

benatsarasola@gmail.com



Laburpena || Artikulu honen xedea euskal poesiako modernitatearen inguruko periodizazio eta kontzeptualizazio berri bat ematea da. Orain arteko teoriaren aldean, modernitate poetikoa Gabriel Arestiren ondorengo belaunaldiak eratu eta gorpuztu zuela defendatzen da. Gisa honetan, Arestiren garaikidea den Mikel Lasatik Bernardo Atxagaren *Etiopiarainoko* ibilbidea azalduko da, aipatu modernitatearen osatzea den denbora tarteak alegia. Hala, aipatutakoez gain, Ibon Sarasola, JosAnton Artze «Hartzabal», Amaia Lasa, Arantxa Urretabizkaia eta Mikel Arregiren garaiko produkzio poetikoa hartuko da aintzat.

Hitz-gakoak || Modernitatea | Ooesia | Euskal Literatura.

Abstract || The main aim of this paper is to propose a new periodization and a new conceptualization of modernity within Basque poetry. In contrast with other theories, it defends that poetic modernity was set up and established by the generation right after Gabriel Aresti's. Thus, it will analyze the path that runs from Aresti's contemporary poet Mikel Lasa to Bernardo Atxaga's *Etiopia*, that is to say, the period of modernity's development. Apart from the already mentioned, the contemporaneous poetic production of Ibon Sarasola, Joseanton Artze (Hartzabal), Amaia Lasa, Arantxa Urretabizkaia and Mikel Arregi will also be considered.

Keywords || Modernity | Poetry | Basque Literature.

0. Sarrera

Zenbait kritikoren aburuz (Kortazar, 2009; Aldekoa, 2000), Mirande eta Arestiren poesian kokatzen da euskal poesia modernoaren hastapena. Beste batzuen ustez (Gabilondo, 2006), *Etiopia* da euskal poesia modernoaren abiapuntua. Auzi honetan, batetik, modernitateari buruzko ezbaia genuke, eta bestetik, euskal poesiaren historiaren irakurketa, zeina, esan gabe doa, ezberdina baita kritiko bakoitzarengan.

Artikulu honetan, hala, modernitate poetikoaren inguruko ñabardura batzuetatik abiatuta, garai honetako euskal poesiaren bilakabidearen interpretazio ezberdina proposatuko da. *Harri eta Herri* eta *Etiopia* liburuen garrantziaz haratago, garaiko beste liburu, poetika, eta autoreengan jarriko da arreta, euskal modernitate poetikoaren ikuspegitik aipatutako biak bezain funtsezkoak –eta kasuren batean are funtsezkoagoak– direlakoan. Honenbestez, garai hari dagokion gaur egungo kanon poetikoa kolokan ipini eta idazle eta ildo berriak mahaigaineratzea da lan honen jomuga nagusienetakoa.

Modernitatea aztertzeko hurbilketa askotarikoak erabili daitezke, eta erabili izan dira. Irakurketa soziologiko-sistemikoak (Gabilondo, 2006) euskal sistema literarioaren osaketan ipintzen du arreta, *Etiopia* eta Pott Banda ezarriz eragile funtsezko gisa¹. Honakoa, ordea, alderdi estetikoan oinarritutako azterketa izango da, hots, modernitate estetikoaren ikuspegitik interpretatuko da euskal poesia modernoa. Lanaren sakonean kokatzen den paradigma kritiko-teorikoa Frankfurteko Eskolarena (zentzu zabalenean) izango da, zeinek, ezagun denez, diziplina ugari lotuz estetikan eta artearen autonomian funtsatutako irakurketak landu baitzituzten². Beren lanek –batez ere *Teoría Estética*– osatzen dute modernitatearen eta honen erradikalizazioa den modernismoaren hurbilketa estetikoaren erdigunea. Zehazkiago, poesiari dagokionez, Hugo Friedrichen *Estructura de la lírica moderna* izango da abiapuntu, zeina modernitate poetikoaren auziari heltzen dion liburu klasikoetan klasikoena baita eta, nahiz eta ez den kokatzen Frankfurteko Eskolan, erromanista alemaniar handien ildoan (Ernst Robert Curtius, Erich Auerbach, Leo Spitzer) ezartzen ahal dugu, zeinek hurbilketa estetiko ipintzen zuten beren analisisien erdigunean.

1. Modernitate poetikoa

Friedrichen azpimarratzen du poesia modernoaren ezaugarri nagusienetako bat bere iluntasuna dela. Liburuaren lehenengo esaldia hartzea besterik ez dugu horretaz jabetzeko: «El acceso a la lírica europea del siglo XX no es cosa fácil, en cuanto ésta se

OHARRAK

1 | Gabilondoren azterketa aitzindari bezain interesgarria dela ezin ukatu badaiteke ere, *Etiopia* eta Pott Bandaren garrantzi sistemikoa aski puzten duela iruditzen zait. Dudarik gabe, beste azterketa sakonago baten gaia izango litzateke, baina Lur argitaletxea, *Oh Euzkadi* aldizkaria eta Ramon Saizarbitoriaren nobelek euskal sistema literarioaren eraketan arestikoek baino pisu handiagoa izan zutela esango nuke.

2 | Ikus, besteak beste, Adorno, Th. *Teoría estética* eta Marcuse, Herbert, *La dimensión estética*.

expresa por medio de enigmas y misterios» (Friedrich, 1974: 21). Iluntasun honek, ostera, liluratu eta durduzatu egiten du irakurlea aldi berean³. Osoki ez ulertze horrek, beraz, ez du poema erabat baztertzeraz eramatzen. Irakurlearengan eragiten duen efektu honi *disonantzia* izena ipintzen dio teorialari alemaniarrek⁴. Honekin lotuta, beraz, poeta modernoak ez du komunikazio-gertutasunik bilatzen eta darabilen mintzaira ez-deskriptiboa izaten da. Hala, mintzaira arrunta eta mintzaira poetikoaren arteko aldea, erlatiboa izatetik -poesia pre-modernoan- erradikala izatera igarotzen da. Honen guztiarengatik, testuaren ulermenaren beraren kontzeptu klasikoa kolokan ipintzen da, eta hala, onartzen da poema moderno bat ezin dela osoki azaldu, ezin dela azalpen oso eta behin-betikorik erdietsi⁵.

Disonantzia hori lortzeko poetak irakurlearen ideia urratu behar du, hots, irakurlearen eskarmentu literarioarekin, hark espero dezakeenarekin hautsi. Horregatik bilatu behar du tradizio poetikoarekin haustura erradikala; iraganarekin hautsi behar du irakurlea txunditu eta zerbait «berria» sortzeko. Gainera, erradikaltasun horrek maiz eragiten duena zera da: poetaren arrakasta eza eta ulertu ezintasuna, eta horrela sortzen dira modernitate poetikoarekin bete-betean loturik dauden poeta madarikatuaren figurak. Bestetik, adierazleak adieraziarekiko indarra hartzen du: batetik, hizkuntza eta errealtatearen arteko lotura berehalako eta xaloarengan konfiantza galdu eta hitzaren beraren propietateetan arreta ipiniz -hitzen haustura, espazialtasuna, musikalitatea eta abar-. Bigarrenik, gauza bera gertatzen da niaren eta hizkuntzaren arteko loturarekin, eta horregatik, Friedrichen aburuz eta T.S Elioten ideiei jarraiki, poesia modernoaren historia, neurri handi batean, poesiaren *despertsonalizazio* progresiboaren -Baudelairearengandik abiatuta- historia da (1974: 48-51; 211).

2. Arestiren poetika

Maiz esan izan da Aresti zenbait alderdiri zegokionez pertsonaia kontraesankorra izan zela. Bere poetikari dagokionez, akaso ez zen kontraesankorra izan, baina agerikoa da urteek aurrera egin ahala aldaketak izan zituela. Aski hitz egin izan da Arestiren poesiagintzaren eraldaketaren inguruan (Aldekoa, 2008: 238-250), baina ez hainbeste Arestiren pentsamendu poetikoaren inguruan.

1960an Donostian eman zuen hitzaldi batean, «Poesia eta euskal poesia» izenekoan, «poematika» (poetika) baten aldarrikapena egiten zuen, hau da, poetaren kontzientzia poetikoa landu beharraz. Kontu askoren inguruan mintzatu zen, baina bi alderdiri zegokionez, aski pentsamolde poetiko modernoak garatu zuen. Poeta *laureatus* eta poeta *outsiderren* arteko bereizketa eta poesiaren

OHARRAK

3 | Viktor Shklovskyren urrutze (Viñas, 2011) kontzeptua (Novalisek ere erabili zuena) egokia da, esaterako, efektu hau azaltzeko.

4 | Iluntasuna goratzen dutenen adibide ugari ipintzen ditu Friedrichek: Charles Baudelaire, Gottfried Benn, Saint-John Perse, Eugenio Montale, eta ez bakarrik poetak, Igor Strawinsky.

5 | Horixe litzateke urte batzuk beranduago Wolfgang Iserrek batez ere literatura modernoarentzat landutako *mugagabetasun* kontzeptua.

funtsa eta poesiaren formaren artekoak nola lantzen dituen ikustea besterik ez dago. Lehenengoan, poeta *outsiderraren* aldarria egiten du, publikoaren txalo eta irri erraza lortzen ez duenarena; nolabait, bete-betea den poeta bazterrekoarena. Bigarrenean, poesiaren funtsa/formaren artikulazioaren alde agertzen da, alegia, bi poloetako baten alde egin beharrean bien arteko lotzea du aldarrikatzen. Bere sinplean, estetika moderno gehienek azpimarratu izan duten kontua izan da honakoa, formalista errusiarrengandik hasita arestian aipatu Adornorenenganaino. Hitzaldi honetan, gainera, «Olerkaria» izeneko bere ipuinaren aipamen bat dago. Ipuin hau ere oso interesgarria da gure gaiarentzat. Izan ere, ipuinak poeta baten istorioa kontatzen du, zeinak bizitza guztian poesia idazten jardun ondoren –14.256.000 puntu idatzi zituen–, soberan zeuden lerroak kendu eta bertso bakarrarekin geratu baitzen: «Gizonaren gorputza / buztinezkoa da». Isiltasunerantz doan poeta baten istorioa da, ezabatzearen ezabatzeaz ezerezerantz doanarena. Eta ez hori bakarrik, azkenean geratzen zaion bertsoa dagoeneko –Biblian– idatzia dagoena da. Zalantzarik gabe, irudi hau biziki modernoa da. Isiltasunaren poetikak zein testuartekotasunaren ideia erradikal modernoak XX. mendeko literatura gorena zipriztindu dute.

Alta, zenbait urte ondorengo testu batzuetan poesia sozialaren eraginpeko ideiak babesten hasten da bilbotarra. Bere poetikaren aldaketa ikusteko ezin hobea da 1968ko bere «Mentalidad poética vasca» hitzaldia irakurtzea. Aski esanguratsua da, esaterako, euskal Berpizkundearen inguruko bere irakurketa.

[la *Berpizkunde*] es una literatura idealista, sin ningún interés social, que no trata ni toca de cerca ni de lejos los problemas del hombre de la calle; naturalmente no encuentra eco en el pueblo. Los libros no se venden, los lectores son escasísimos. Además, quitando acaso únicamente la honorísima y meritorísima excepción de Lizardi, la calidad literaria es muy escasa (Aresti, 1986: 104).

Arestik idealistatzen jotzen duen poesia horren arbuioa urte gutxi batzuk lehenago Josep Maria Castelletek *Veinte años de poesía española* zerabilen poesia sinbolista/poesia errealista –bigarrena goraiapatuz, lehenengoa gutxietsiz– dikotomiarekin lotzen ahal da. Arestik aipatu poesia idealista eta Castelleten poesia sinbolista oso gertu daude elkarrengandik eta gogora ekarri behar da antologia horrek alimaleko eragina izan zuela penintsulan. Arestirengana itzuliz, aurrerago, artikulua berean, poesiak euskararen egoerarekiko duen menpekotasuna garbi asko ikus daiteke. Arestiren poetika, garai hartan, afera extrapoetikoaren mende zegoen.

Quizá fue él (Orixe) quien nos hizo fijarnos en la verdadera esencia del versolarismo. El nos dió a conocer que nuestro pueblo auténtico tenía sus poetas auténticos, que el campesinado que surgió fiel a los modos tradicionales de vida, tenía una literatura oral única en el mundo, e hizo

que el escribir en vasco fuera una cosa importante (Aresti, 1986: 104-105).

Hortik aurrera, hitzaldiaren amaiera arte, Arestik euskararen biziraupenaren aldeko diskurtsoa garatzen du, batez ere Unamunori kontra egiteko. Honekin lotuta aski adierazgarria da, halaber, 1975ean *Triunfo* aldizkarian egindako elkarrizketa batean esandakoa. «La poesía para mí no es sino un medio didáctico de la educación de las masas. Por lo tanto, he tenido que utilizar una clase de lenguaje muchas veces no poético» (Aresti, 1986: 229). Adierazpen honek ongi erakusten du garai bateko konpromisoaren poetikaren muina, halako ideologia materialista-mekanizista arrunt baten menpeko dena. Hizkuntza ez-poetiko baten erabilera aldarrikatzera ailegatzen da; hots, arrazoi sozialengatik poesiari berari uko egitera⁶.

3. Arestiren ondorena

Esan bezala, Arestiren eragin eta presentzia intelektuala hain izan zen handia ezen bere poetikari aterabideak eskaini zituztenek ere (Izagirre, Atxaga) nekez egingo baitute diskurtsiboki bere kontra. Izagirreren kasua aski interesgarria da, esaterako. «Txipitasunaren iraultza (etxemaitez eta espetxez)» hitzaldian Aresti *Maldan behe* idatzi zuen poeta izatera mugatzen dela diotenen kontra oldartzen da hasieran, nahiz eta aurrera egin ahala, bere analisi zehatzek Arestirenganako bereizketa iradokitzen duten etengabe. Halaxe irudikatzen ditu Arestiren ondorengo belaunaldiaren ezaugarri orokorrak:

Aresti ondoko belaunaldiaren ezaugarrietako bat gai zehatzetako poemak ez egitea da. Ez du gai bat hartu eta haren inguruko bariazioak edo metaforak landuko. Idazkera automatikora heldu gabe baina, etorria laxo utziko du, anti-intelektuala du jarrera poemagintzan, eta helburua edertasuna du, ez didaktismoa. Ez du poema ideien garapenez sortzen, bere poesia ez da diskursiboa. Nahiago du irudiaren indarra mezuaren zehaztasuna baino (Izagirre, 1993: 63).

Gaiarekiko atxikimendu eza, didaktismo eza, poesia ez diskurtsiboa, irudien indarra... horiek guztiak poesia modernoaren ezaugarri funtsezkoenetakoak dira, lehenago Friedrichen eskutik ikusi dugun gisan. Hitzaldi horretan Izagirrek aipatzen du, ez alferrik, belaunaldi berri horren manifestua-edo *Ustela* aldizkariko lehen aleko «Ez dezagula konpostura gal, halare» famatua dela, Izagirrek berak eta Atxagak sinatutakoa. Baike, dudarik gabe testu ezin egokiagoa da Arestiren poetika sozialarekiko haustura adierazteko. Transgresioa eta ikonoklastia goratzen ditu: «Geurea, euskal literaturari astinaldi bortitzak ematea da» (Atxaga et al., 1975). Literaturaren autonomia aldarrikatzen du, beste ezaugarri moderno argia dena (Bürger, 2009): «Zeren literaturak bai bait du bere dinamika propioa ta

OHARRAK

6 | Mintzaira ez-poetiko baten aldarrikapena arrazoi estetikoetatik egitea ere posible da, antipoesiak egiten duen gisara esate baterako (Nicanor Parra), baina Arestiren argudiaketak ez du zerikusirik honekin.

berezia» (Atxaga et al., 1975). Mintzaira arruntarekiko distantzia azpimarratzen du: «Literatura espresabide da lehen lehenik, eta ondorioz, komunikabide» (Atxaga et al., 1975). Belaunaldi berri horren espresabide nabarienetakoak izango dira literatura aldizkariak (*Ustela, Oh Euzkadi, Pott, Susa...*) eta bere poema-liburu laudatu eta erreferentzialena izango da, hain zuzen ere, Atxagaren *Etiopia*.

4. *Etiopia versus Harri eta Herri*

Ikerketa honetan kontuan hartutako denbora tartean, bi libururen arteko kontraesana gailentzen da oroz gain: *Harri eta Herri* eta *Etiopia*. Lehenengoa dugu, askorentzat, estreinako euskal poeta modernoaren –Miranderekin batera– liburu funtsezkoena eta garai oso bati eragin ziona. Bigarrena, bestetik, Arestiri eta hark ordezkaten zuen poesia sozialari emandako erantzun poetiko indartsuena litzateke. Aresti/Atxaga kontraesan honetan gehienak (Gabilondo, 2006; Kortazar, 2009) daude gutxi-asko ados, nahiz eta modernitatearen hastapena batean edo bestean kokatu. Alabaina, ez da zuzena esatea Pott izan zela «euskal letrek (ez literaturak) jardun hizkuntzalari eta abertzaleekin ordura arte zituzten lotura hertsia» (Gabilondo, 2006: 87) disolbatu zituena; Pott baino lehenago ere, lotura hauekin hautsi zutenak izan zirelako, artikulu honetan ikusiko dugunez. Tartean adibide ugari ditugu Arestiren itzal poetiko handitik eta funtzio sozialetik landa poesia egiten ahalegintzen direnak (Mikel Lasa, Mikel Azurmendi, Ibon Sarasola, Amaia Lasa, JosAnton Artze, Mikel Arregi, Arantxa Urretabizkaia, Koldo Izagirre).

Esan bezala, zalantza ezinezkoa da Arestiren figura nagusia izan zela euskal kulturaren bilakabidean. Euskararen eta euskal kultura moderno baten aldeko bere lanak belaunaldi oso bati eragin ziola esan dezakegu. Ideologia literario eta politiko arras ezberdina duten idazleek aitortu izan dute berekiko zor intelektuala: Ramon Saizarbitoriatik hasita Bernardo Atxaga berarenganaino. Arestiren poetika hegemonikoari aurre egin zioten poeta ugari ere aitortu eta miretsi izan dute bilbotarraren aparteko garrantzia.

Harri eta Herri euskal poesiaren teorian izandako eragina ikusteko nahikoa da Juan San Martinen 1966ko eta 1968ko bi testu begiratzea. Xabier Leteren lehenengo poema liburuari, *Egunetik egunera orduen gurpilleari*, hitzaurrea egin zion 1968an eta bertan ederki asko ikus daiteke nola egiten duen poesia «funtzionala»-ren alde, hau da, gai sozialei atxikitako poesiaren alde. Premiazkotzat jotzen du euskal literatura herri behartsuari begira jartzea, literatura herriaren ahora eramatea eta euskara euskaldun behartsuen gogoetan txertatzea. Poesiaren berehalako praktikotasuna aldarrikatzen du. «Une historiko huntan positibismo beharrean arkitzen gera gauzak aldatuko

baditugu herri bezala iraun ahal izateko, gizon guztien arteko justizia baterat abiatu dezagun» (1968: 4). 1966ko Agora poesia lehiaketako mahaikide gisa aritua, sarira aurkeztutako lau lan azpimarratzen ditu. Lan hauek zeintzuk ziren 1966ko testuan, *Jakinen* idatzitako artikulua batean, aditzera eman zituen: Xabier Leteren *Pekatu zaharrak eta siñismen berriak*, Ibon Sarasolaren *Ahuntzaren gauerdiko eztulak*, Joxe Azurmendiren *Bidez bide* eta akatsez Eusebio Erkiagari egokitutako (egiatan Juan Mari Lekuonarena zen) *Mindura gaur*. Lauen maila altua seinatu arren, azkenean Leterenaren alde egin zuen epaimahaiak eta San Martin berak. Leteren poesia «gizarte gaidun poesia funtzional» eta «era berriko poesia sozial» (1968: 5) gisa definitzen du, eta beraz, esan dezakegu bere ustez *Egunetik egunera orduen gurrpilean* dela lauetan *Harri eta Herri*ren poetikara gehien hurbiltzen dena. «Agerian dago Aresti gandik kutsatua dela, bere eskolatikakoa dela. Hots, *Harri eta Herri*-kin sortu eta gorpuztu zen Arestiren eskolatik influentziatua» (1968: 5). *Jakineko* artikuluan, Leteren poema sozial bat halaxe iruzkintzen du: «Au da gaurko gizonaren garraxia, ta ez Rilke eta Juan Ramón'en poesiaren poesia. Au da lagun hurkoa maitatzea» (1966: 69). Egiatan, liburuaren lehenengo zatia, Leteren poesiagintzan guztiz ahaztua dagoena, aski urruntzen da, oro har, poesia molde horretatik, eta bertako poema zenbait («Gaur, Biar eta Beti», «Bide ezkutua», «Hauek dira...») 70eko hamarkadan azalduko diren proposamen poetiko moderno askoren (Sarasola, Artze, Atxaga) aurrekari legez irakur litezke. Liburuaren gainontzeko bi zatiak zein poetaren ondorengo ibilbidea halako esperientziaren poesiarentz eta poesia sozialerantz joan zenez, horixe da euskal poesia irakurlearen akorduan geratu dena, baina ikuspuntu literario batetik, eta zer esanik ez gure gaia den modernitate estetikoarenetik, aipatu poema horiek askoz ere garrantzi eta balio handiagokoak direla iruditzen zaigu.

*Harri eta Herri*ekin Arestik garaiko poesia espainiarreko erdigune poetikoa hartu zuen bere gain. Ezagun da nolakoa izan zen bilbotarrak espainieraz idazten zuten beste poeta batzuegandik (Blas de Otero, Gabriel Celaya) jasotako eragina (Aldekoa, 2008). Askotan aipatu izan da Arestik poesia sinbolistatik (*Maldan behe*) poesia sozialerantzko biraketa egin zuela. Esan beharra dago testuinguru honetan euskal kritikak batere zehaztasunik gabe erabiltzen duela «sinbolista» hitza. 50 eta 60ko hamarkadetan Espainian nagusitu zen hizkeraren ajeak errepikatzen ditu, bereziki, poesia sozialaren garrantzia ulertzeko funtsezko liburuaren hitzaurrean, aurretik aipatu *Veinte años de poesía española* eta hango poesia sozial (errealista)/poesia sinbolista bereizketan. Hitzaurre horretan Castelletek «sinbolismo» terminoaren erabilera oso lausoa egiten du, halakotzat baititu saiakera poetika abangoardista eta modernista oro, hots, konprometitua ez den poesia formalista.

En estas condiciones, no es de extrañar que se predique y practique una

poesía irrealista y evasiva, formalista y esteticista: Mallarmé llegará a ser el máximo representante del movimiento simbolista que, con algunas variaciones teóricas, pero siempre dentro de una línea formalista y no comprometida, será proseguido a su muerte por esa gran floración de poetas europeos que van de Valéry a Ungaretti, pasando por Eliot, Benn, Saint-John Perse, etc. (Castellet, 1960: 31).

OHARRAK

7 | Ikusteko legoke zein izan zen honetan guztian Lizardi eta Lauaxetaren ekarpena.

Sinbolismoa, zentzu hertsia eta zehatzean, beraz, batez ere tradizio frantsesean gorpuzten den mugimendua dugu, nolabait Baudelairetik Mallarmérengana doana, baina Castelletek, bere eginahal kanonizatzailean urrutira luzatzen duena, eta zentzu negatiboan gainera. Gaur egun, ostera, doitasunez hitz eginda, nekez azalduko da Benn, adibidez, mugimendu simbolistaren partaide gisa, eta gauza bera esan daiteke *Maldan beherari* buruz, zeina, besteak beste, Mallarmé hil eta mende erdi pasata idatzia izan baitzen.

Edonola ere, funtsezkoa dena zera da: *Harri eta Herriekin* Arestik irekitzen duen zikloa (*Euskal Harria, Harrizko Herri Hau*) garaiko erdigune poetiko espainiarrak markatutakoa dela. Eta ideia poetiko horien garaitza soilik Espainiako literatur sistemaren ikuspuntutik ulertu daiteke, Europan, eta are mendebaldean, nagusi zen modernitate poetikoa –besteak beste hain zuzen Castelletek 60an gutxiesten zituen poeta horiek ordezkaturak– bide arras ezberdinetatik zihoan-eta, Friedrichen liburuak ongi adierazten duen moduan. Eztabaidaezina da Arestik eta *Harri eta Herri* euskal poesian eta euskal kulturaren oro har izan duten eragin itzela, eta horretaz gain, euskararen berriztapen (euskara batua) eta hedapenean ere egundoko lana egin zuela agerikoa da. Haatik, mahai gainean jarri beharko genuke ikuspuntu estetikoak, eta bereziki Espainiako garaiko ideologia literario hegemonikotik landa, tamaina bereko garrantzia ote duen Arestiren poesiagintzak. Neurri horretan, esango genuke euskal poesia modernoa, Arestiren mailuaren poetikaren erantzun gisa zertu zela behin betiko, mailuarekin berarekin bainoago. Aurrekariak izan bazituen ere (Berpizkundera, Mirande, Arestiren lehen poesia⁷), euskal poesia modernoa, jarraian azaltzen ahaleginduko garen moduan, 70eko hamarkadan gorpuzten da osoki, ez soilik *Etiopiar*ekin, baizik eta Mikel Lasarekin abiatzen den lerro multzo handi samar batekin.

5. Aresti eta Atxaga artean

Harri eta Herri eta *Etiopia* artean hamalau urteko aldea dago eta urte horietan gorpuzten da, honenbestez, egiazki euskal poesia modernoa. Jakina, periodizazio orotan gertatzen den bezalaxe, aurrekari ugari topatu daitezke lehenago esan bezala. Alabaina, poesia modernoaren ezaugarri funtsezkoenak luze-zabal eta bete-betean bere gain hartzen dituztenak Arestiren ondorengo poetak

dira. Ez soilik Izagirre, Atxaga eta beren ondorengoak (Sarrionandia, Irastorza, Montoia...), baita belaunaldi gazte honen eta Arestiren artean geratzen direnak ere.

5.1. Mikel Lasa eta *spleena*

Bere lehenengo liburua *Tamariza eta pikondoa* izan zen, 1967an argitaratutakoa. Hala ere, bertan azaldutako poema zenbait 60ko hamarkadan zehar joan ziren publikatzen aldizkari batzuetan, eta hala, horietako zenbait *Harri eta Herriren* aurrekoak dira. Hau da, ezin esan daiteke hertsiki Lasaren poetika Arestirenaren erreakzioz gorpuzten denik.

Lasak ordura arte beste ezein euskal poetak baino hobekiago jaso zuen modernitatearen gogo egoera, Baudelaireren⁸ *spleen* edo *ennui* hori. Lasaren mundu poetikoa malenkoniak beterik dago, eta bere sinbologia halakoxea da: lainoa, langarra, kaioak (gogoan izan Baudelaireren «L'Albatros»), itsasoa... Bere poesian nagusia den urtaroa udazkena da. «Tamariza eta pikondoa» poemako lehenengo bi lerroak hartzea besterik ez dago hau guztia ikusteko: «Euriaren tristea / ari ta ari atergabeko amaian». Bi lerro horiek, beren motzean, elementu ugari sintetizatzen dituzte. Alde batetik, tristezia azaltzen zaigu sinbolo errepikari batekin loturik, euriarekin. Bestetik, amaia, gogogabetasun sentipen moderno honekin loturik doana (Verlaine-Mallarmé), baina oximoron bidez azaltzen zaiguna, atergabea delako. Amaia eta ezereza ere beste hainbat lekutan aurkitzen ditugu, paradoxikoki maiz, poema bereko amaiera famatuan esaterako: «"DANA"-k ta "NADA"-k zirkulua bukatzen dute». Izaera paradoxiko hori maiz azaltzen zaigu, halaber, poetika modernoetan (Adorno, 2004). *Spleen* hori agertzen zaigu, orobat, «j... Mais Débarrassé de qui?...» prosa poetikoan, igandeei buruzkoa dena.

Gogogabetasun hau lehenengo erromantizismoaren errebeldia sortzailearen aje gisa interpretatu izan da sarritan. Gizakiak galdu ditu klasizismoko printzipio sendoak eta hala, modernitatea bi ahoko ezpata bihurtzen da: askatasuna eskaintzen du alde batetik, baina aldi berean, osin sakon bat irekitzen du gizakiarengan, segurtasun falta betiereko bat. Sentipen hori litzateke *spleena*, zentzu batean Lasaren garaian indar handia zuen existentzialismoak ere jaso eta garatuko duena, baina Baudelairez geroztik –gutxienez– abiatzen dena.

Sentipen moderno hau guztiz loturik dago arestian aipatu malditismoarekin. Sarritan ni poetiko modernoak bakardadean sentitzen da, ulertzen ez diotela, gizartetik aparte, eta horixe topatzen dugu ere getariarraren poesian. «Poeta berria» izan daiteke adibide egokia, non, honetaz aparte, Europako modernitate poetikoarekin

OHARRAK

8 | Konparazioa ez da batere behartua, hor dugu, besteak beste, Lasaren «Baudelaireren gisan» poema.

lotzeko nahia agertzen baita: «Munduaren hatsa // nahi nuke atzeman / Europako bide ugarietan / (hainbeste jendetza eta ni hain bakar)». Malditismoa azaltzen da baita ere bere poema famatuenetako batean, «Txorabioa»-n: «kontra nagoena naiz / kontraren kontra / ta inor ez dago nere alde».

Lasaren ni poetikoaren aldarte honek ez du zerikusirik Arestiren mesianismoarekin. Aresti eta Lasaren arteko aipu dexente aurkitzen ahal dira bien obretan. Lasak Arestiren ekarpena goratzen du (Lasa, 1993), baina era berean, Aresti eta tradizio modernistaren arteko konponezintasunak azpimarratzen ditu. Egiatan, Lasa da Arestiren itzal handiari zuzenean erantzutera ausartzen den poeta bakarra, bai behintzat poetika edo hausnarketa poetikoari dagokionean.

Hay en Aresti (*Maldan Behera*) una influencia de T.S. Eliot, es indudable. Una influencia producida por una lectura seguramente demasiado rápida y en todo caso no asimilada. Nada en la vida y los escritos de Aresti hace presentir la espiritualidad de Eliot (Lasa, 1993: 290).

5.2. Ibon Sarasola poeta konstruktorea

Obra poetiko aski murrizta du Sarasolak⁹. 1969ko *Poemagintza* poema-liburua izan da bere ekarpen bakarra. Hala ere, liburu horretan, bere laburrean, modernitate poetikoko hainbat ezaugarri aurkituko ditugu, bere garaikideak diren beste poeta batzuenetik (Lasa, Artze) bereizten direnak eta Atxagaren *Etiopiaren* aurrekari argizat har daitezkeenak.

Liburuko lehenengo poema irakurtzen hasi baino lehen topatu dezakegu estreinako aztarna modernoa. Aitzin-oharrak horrela baitio: «gaur eguneko herriak / ene hitzak onhartzen ez / baditu / biharkoari mintzatuko / naiz edo / etzikoari». Seguru asko euskal poesian ez dago honakoa bezain aitorpen moderno goiztiarrik. Lehenago aipatu dugu nola lotzen den modernitatea balio estetiko berrienekin eta nola honek garaiko ulertezintasunak ekar ditzakeen. Juan San Martinek *Anaitasuna* aldizkarian egindako aipamenean horixe bera seinlatu zuen: «[*Poemagintza*] Minorientzat dela? Ta zer?» (San Martin, 1970). Liburu guztian topatzen dugun ideia poema konstruktorearena da, halako poeta-ingeniariarena, bere lehenengo poema famatuan («CCLXXVI») ondo ikus daitekeenez. Liburu guztian musikak duen garrantziak ere sinbolismora gerturatzen du¹⁰ eta han-hemenka topatzen ahal dugu baita ere Lasarengan aurkitzen dugun *spleen* edo *ennuia* («CCCLVII»), esanahiaren krisiarekin lotzen dena: «sentidurik ez du / ten hitzak». Arestiren «mailuaren poetika»-rekiko bereizketa ere argi eta garbi azaltzen zaigu «CCCLXXXVII» poeman, non Aresti bera baita poemaren erdigune ironikoa.

Gabriel Arestiri
esan behar diot

OHARRAK

9 | Sarasolaren poetikarekin lotu daitezkeen beste poeta bat Mikel Azurmendi da, zeinak Sarasolak baino oraindik korpus txikiagoa baitu (zati handiena *Euskal Eleri 69* liburuan azaldu zen), eta horregatik, lan honetatik kanpo geratu da haren poesiaren azterketa.

10 | Musikak sinbolismoan eta modernitate poetikoan eduki garrantzia neurtzeko, ikus Poe et al.

mailu guztiak
poesia direla
baina ez
poesia guztiak
mailu
Mailu guztiak eta poesia guztiak...
(Sarasola, 1969: 25)

OHARRAK

11 | Sarasolan «Periodiko saltzailea» baldin badugu, Atxagan «Berripaper saltzailea».

Sarritan aipatu izan da Lasak Sarasolarengan izandako eragina (Landa, 1983), baina azpimarratu behar da Sarasola Lasak esploratu ez zituen bide poetikoetan barneratu zela. Formalki grafiaren haustura eta orriaren espazio poetikoaren zabaltzea ekarri zuen, urte gutxiren buruan Artzek muturrera eramango zuen ezaugarria eta Lasaren kasuan apenas aurkitzen ahal zena. Bestetik, testuartekotasuna erruz erabiltzen hasi zen, Lasak egin baino nabarmen gehiago eta indar handiagoz. Ironia eta autoironiak ni poetiko zurrun eta osoaz trufatzera darama, «Gaur arratsaldean» poema-testuan ongi geratzen denez agerian. Gainera, goi-kultura –batik bat musika klasikoa– eta pop kulturaren arteko nahasketa bizkorra dugu, euskal poesian inoiz ez bezala ehundutakoa. Azkeneko elementu hauek guztiek Sarasolaren poesia halako hermetismo baterantz eramaten dute, bat datorrena erabat lehenago aipatu aitzin-oharrarekin. Ezaugarri hauek guztiek egiten dute *Poemagintza Atxagaren Etiopiaren aurrekari* behinen¹¹. Bereziki erkagarria da «Poeta bat hirian» poema *Etiopiako* hainbat alerekin.

5.3. JosAnton Artze «Hartzabal» eta poesia bisuala

Artze da, ziur aski, Aresti eta Atxaga arteko poeta gutxietsiena. Bere lanaren zati bat nola-hala ezaguna izanagatik, ez da behar bezala aintzat hartzen, egiazki, XX. mendeko bigarren erdiko poeta gorenaren artean kokatu behar bada ere. Ez Dok Amairu taldeko hainbat musikaririk erabilitako bere testuak dira ezagunen, baina ez da bere benazko ekarri poetikoaren neurria hartu. Lasa eta Sarasola gutxi-asko Arestiren poetikaren alternatiba gisa aurkeztu izan badira ere (Aldekoa, 2004), ezin da gauza bera esan Artzeri buruz, nahiz eta seguruenik beste inork baino erradikaltasun handiagoz gorpuztu zuen alternatiba hori. Artikulu honetan aintzat hartutako urte tartean ekoizpen oparoenetakoa izan zuen poeta dugu halaber.

Askotan Artzeren poesia saiakera muturreko gisa hartu eta ez da sobera gehiago esaten. Poesia bisualaren etiketa ipini eta abangoardia erradikalaren baitan jartzen da, bitxikeria hutsa balitz bezala. Izagirre bezalako poesia irakurle fin eta jakileak berak, bere belaunaldia aurrekoarekin bereizi nahian, «Hartzabalen saioa pertsonalegia da» (Izagirre, 1993: 65) dio. Josu Landak, ildo berean: «Joxe Antonio Artze “Hartzabal” denboratik aparte dagoen poeta da. Bere lanegiteko modua baino bakartiagorik ezin aurkitu mundu osoan ere. (...) Ahistorikoa da zeharo, eta ahistorizismo horrek utziko

du, hain zuzen, literatur historia guztietatik kanpo» (Landa, 1983: 95). Hor aurkitu dezakegu Artzeren baztertearen arrazoietakoa bat. Izan ere, hala nola, garai hau hartzen duen poesia antologia garrantzitsuenetik, Iñaki Aldekoaren *Antología de la Poesía Vasca* tik kanpo geratu zen, eta hitzaurrean egiten zaion aipamen bakarra xume bezain adierazgarria da: «José Antonio Hartzabal (Artze), entregado a su experimentalismo y poesía visual» (Aldekoa, 1993: 21). Kortazarrek, bestalde, «Hiru olerkari konpromisodun» atalaren barne kokatzen du (Kortazar, 2000), oraindik irakurketa bihurri eta desegokiagoa eginez. Erradikaltasunak erradikaltasun, ezagun da beste tradizio literarioetan (urrutiegia joan gabe, Espainiako literaturan Juan Eduardo Cirlot eta Kataluniakoan Joan Brossa), denboraren poderioz, aski normaldu eta integratuak daudela literaturaren historietan poesia bisuala eta beste esperimentazioak. Ahistorizismoaren eta saiakera pertsonalegiaren kritikek, hortaz, zama galtzen dute mendebaldeko poesiagintzari so egiten badiogu oro har.

Artzeren poesia adibide egokia da ikusteko nola poesia modernoan adierazlearen halako leherketa bat dagoen. Areago, adierazletik haraindi, liburuaren espazio fisikoa bera ere poesiaz betetzen da, eta hala, balio estetikoak ezin dugu soilik poesia bakoitzaren transkripzioa mugatu, eremu hori gainditzen duelako¹². Bere lehengo liburuan bertan, *Isturitzetik Tolosan barrun*, erraz asko ikusi dezakegu alderdi hori. Poesia arte plastikoetara gerturatzen da nolabait. Gogoan izan behar da liburu hau disko batekin lagundurik saltzen zela, non Artzek zenbait testu errezitatzen zituen musika esperimental batek lagundurik. Aliterazioa etengabe darabilen baliabide erretorikoa da, adierazleari indar handia emanez. Ezagun da Verlaineek nola eraman nahi zuen poesia muskarantz, «Art poétique» poema famatuak esaten digun gisan: «Prends l'éloquence et tords-lui son cou! (...) De la musique encore et toujours!». Hitzen esanahia («l'éloquence») alde batera utzi eta adierazlearen musika bilatu. Artzeren poesian aurkitu dezakegun positibismoari kritika ere aski modernoa da –kontrako topikoa oso zabaldua egonagatik–, filosofia idealista alemaniarrek mekanizismo ilustratuari eginiko kritikatik datorrena. Hor ditugu lana eta makinari buruzko bere testu sonatuak edo «zuhaitzak ? gizonari itzala emateko» poema.

Artzeren beste alderdi garrantzitsu bat irakurlearen, hartzailearen inguruko gogoetak dira. Idazten duenean oso kontziente da irakurlearen funtzioaz. Garrantzi handia ematen dio, hainbeste ezen bera gabe poesia kasik existituko ez litzatekeela iradokitzen baitu. Bere liburu guztietan dago presente ideia hori; izan metaforikoki («liliak ederrago dira / norbaitek usaintzean; txorien kantua ere / norbaitek entzutean» –Artze, 2007–), izan zuzen-zuzenean:

liburu honi falta zaion zatia

OHARRAK

12 | Poesia mota honen bi aurrekari nagusiak William Blake eta Stéphane Mallarmé izan daitezke.

beha ezazu,
hor, zure etxean nunbait gordetik dago.
Zure eta neurearen arteko bidea
erdiraino ibiltzen saiatu naiz;
ezin ninteke aurrerago joan.
Zure zureari diotan begiruneak
ez dit gehiagora uzten
(Artze, 1973)

OHARRAK

13 | Ikus «Ez emakume»
poema.

Baina akaso beste inon baino nabarmenagoa da *bide bazterrean hi eta ni kantari* liburuan, non irakurleak zenbaki bidez osatu behar baitu liburuko letra bakoitza umeentzako jolas bat bailitzan. Irakurleak hitzok osatu arte ezin izango ditu poemak taxuz irakurri. Esanahiarekiko eta irakurlearekiko harreman hau Arestiren harriaren zikloaren antipodetan dago, non esanahi itxi eta zehatzetan irakurleak askoz ere funtzio pasiboagoa baitu.

5.4. *Spleenaren* ildoan

Gutxi-asko Mikel Lasak estreinatutako *spleenaren* ildoan kokatu litezke, beren ezberdintasun eta partikularitasun guztiekin, Amaia Lasa, Arantxa Urretabizkaia eta Mikel Arregi.

Amaia Lasaren poema ezagunenak, «Nereak ez diren»-ek, jada adierazten digu izaera bete-betean modernoa duen poeta baten aurrean gaudela. Berritasuna aldarrikatzen du: «a / e / i / o / u / berri bat esan nahi nuke». Horrekin batera, tradizioarekin haustura: «Nereak ez diren / lurralde hauetatik / ihes egin nahi nuke». Berritasun hau, gainera, zalantzarik gabe, aldarri feministarekin lotzen da, ordura arte ia ez baitzen egon euskal idazle emakumerik historian: «Hutsunean igeri dabilen emakume bat izaten naiz». Aldarri hau, halaber, esentzialismorik gabe ehuntzen da, halako identitate queer baten aurrekaria litzatekeena¹³. Elementu moderno hauek guztiak bere anaia Mikelen obran ere topatzen dugun *spleen* horrekin erlazionatzen dira. «Egunean desioaren gogoa hila» edo «Mutikoa ez dute maite» bezalako poemetan zuzenean lantzen dira gogogabetasuna eta bakardadea bezalako gaiak. *Spleen* hau, ordea, ez da nihilismo pasibo hutsean geratzen, eta ni poetikoak egoera hori bortiztasunez eraldatzeko saiakera errebeldea egiten du. «Jaungoiko guztiak ukatzen dituen...» poema izan daiteke errebeldia horren adibide egoki, eta bortiztasuna *Hitz nahastuak* poema-liburu osoan zehar aurki dezakegu, batik bat. Iruditeria bere anaiaren antzekoa da, itsasertz lanbrotsu eta goibela, Izagirreren hitzetan «iruditeria xume eta konstante horren bidez –itsasoa, lurra, haizea, kaioa– oso sinesgarri egiten zaigun giro teluriko batean biltzen gaitu» (Izagirre, 2001: 8). Jarraian ikusiko dugun bezala, *spleen* giro honetan idazten duten poeta hauek guztiek partekatzen duten iruditeria da.

Urretabizkaiaren poesian ere sentimendu malenkoniatsu hori

agertzen zaigu, denboraren iragaite eta haurtzaroaren galeragatiko frustrazioa. «Gau hartan dago haurtzaroaren / muga, / hesia, / zorionaren azken esperantza, / gau hartan hil zen ene / inozentzia, / San Pedro bezpera bateko / gau madarikatu hartan». Amaia Lasaren kasuan bezalaxe, ordea, *spleen* horren kontra matxinatu egiten da ni poetikoa, ez idealismo batean erortzeko, baizik eta erresistentzia eta borroka aldarrikatzeko. Badirudi emakume izateagatiko zapalkuntzaren kontzientziak ez diela uzten, ez Amaia Lasa ez Urretabizkaiari ezkortasun geldo batean amiltzen. Urretabizkaiaren kasuan gizartearekiko herra moduko bat atzematen zaio, ez dena iristen urte batzuk geroagoko Xabier Montoiaren poesiaren muturrera, baina zenbait momentutan aski dorpea dena; esate baterako, «San Pedro bezperaren ondokoak 1» poemako II. zatian, non aitarekiko harremanaz baitihardu gogortasun handiz. Sinbologia aldetik arestian aipatu egun grisak, lanbroa, euria, ilunabarra zaizkigu agertzen halaber: «Ziur nago: / egun gris, / motel batez jaio nintzen, / eguzkirik gabeko egun epel batez, / bi gau beltzek inguratutako / une gelatinatsu batez».

Mikel Arregi Arestiren ondorengo legez kokatu izan da zenbaitetan (Aldekoa, 2008: 265). Existenzialismoarekin lotu izan da halaber (Lekuona, 1975: 13). Haatik, zenbait elementu funtsezkoak bereizten dute Aresti eta Leteren poesia mesianikotik eta modernitatera eramaten. Zentzu horretan, aurreiritziak aurreiritzi, egokiagoa da Lasaren *spleenaren ethos* poetikoarekin lotzea. Gainontzekoekin alderatuta, bereziki azpimarragarria da Arregik idazketaren beraren inguruan hausnartzeko duen joera, eta nola beti halako gabedia edo eskasia egozten dion idazketari: «ene bertsoa ez da segurua». Bere idazlumari idatzitako poema esanguratsua da honi dagokionez: «zu hartzen zaitudanean / sentitzen dudana / mina da, / sasi-poetak sentitzen duen mina, / esan ezin, / ahaleginak ez ezina». Hizkuntzaren izaera problematiko honen kontzientzia, osoki modernoa dena¹⁴, nekez aurkituko dugu Aresti edo Leterengan adibidez. Bestetik, poetaren gizartearekiko bereizketa erdi-bohemio hori, bakardadea, oso presente dago orobat bere poemagintzan. Arregiren aldarte poetikoa atsekabezkoa eta zorion gabekoa da, bizitzarekin nekaturik egongo balitz bezala zaigu azaltzen. *Hego haizearen konpasean* liburuko azkeneko poema, «XXIX», da, ziur aski, horren eredu argiena, baina poemategi osoan zehar aurkituko dugu. Izpiritu malenkoniatsua ere hor dugu: «baina ez dago gelditzerik / berriz ez naiz pasako hemendik». Mikel Lasak igandeei buruzko prosa poetiko bat bazuen, Arregik igande arratsaldee buruzkoa du («XXVIII»). Ezbairik gabe, aldarte honek ez du zerikusirik Arestiren poesiakoarekin, are gutxiago *Harrizko herri haukoarekin*, dagoeneko hor Aresti abailduago bat topatzen dugun arren. Baina horretaz gain, «V» poema Arestiren «Egia bat esateagatik» poemaren ifrentzu nihilista genuke, Arestiren heroismoaren aurreko biraketa etsia. Azpialal honetan aipatutako beste poeten antzera, Arregik ere

OHARRAK

14 | Gogoan hartu Samuel Becketten «Ever tried. Ever failed. No matter. Try Again. Fail again. Fail better» (1984).

kostaldeko iruditeria goibela hartzen du, nahiz eta gainontzekoak ez bezala, barnealdekoa (Areso) izan jaiotzez. «XXV» poema da horren adibide egoki.

5.5. Ondorioak

Euskal poesia modernoaren genealogian hiru momentu azpimarratu izan ditu batez ere orain arteko kritikak. Lehenengoa Berpizkundeari dagokio eta, oro har, Lizardi izan ohi da bertako figura behinena. Bigarrenak Mirande-Aresti bikotean ipintzen du arreta, baina batez ere bigarrenaren lana du nabarmentzen, hala obra zabal eta osatuagoa delako, nola ondorengo belaunaldietan eragin sakonagoa izan zuelako. Azkenik, Pott banda aipatu izan da, eta batez ere Bernardo Atxaga eta *Etiopia*.

Ordea, badago egon Aresti eta *Etiopia* bitartean poeta belaunaldi bat aipatutako poetek bezainbesteko garrantzia duena modernitate poetikoaren gorpuztean, eta aldiz, bigarren eta are hirugarren maila batean kokatu izan dena. Mikel Lasa eta Ibon Sarasolaren lehenengo saiakeretatik Amaia Lasa, Mikel Arregi eta Arantxa Urretabizkaiaren poesiaino doa bide hau. Guztiek ere kontzientzia moderno poetiko argi batetik idazten dute eta lengoaiaren zein poesiaren izaeraren kontzepzio errotik modernoa dute, nazioartean garai hartan zeuden mugimendu eta poeta aurreratuenekin lotzen direla. Alderdi horiei guztiei dagokienez, Arestiren harriaren zikloarekin alderatuz, soslai askoz ere modernoagoa dute, eta *Etiopiar* bide zabala urratzen diote.

Poeta hauen guztien obra, kasu askotan, sakabanatu eta murrizta da (Ibon Sarasola, Mikel Arregi eta Arantxa Urretabizkaia kasu), eta ondorioz, nekez jar daitezke ibilbide handiko beste zenbait poeten parean. Alabaina, ez da hori JosAnton Artzeren kasua. Obra oparoa izateaz gain (Arestitik *Etiopiar*a bakarrik hiru poema liburu argitaratu zituen), izaera poetiko berdingabea duen poeta dugu, arestian azaldu bezala, gutxietsia edo gaizki irakurria izan dena ez gutxitan. Dudarik gabe, euskal poesia modernoaren genealogian kokapen zentrala merezi duen poeta da Artze.

Bibliografia

- ADORNO, T. (2004): *Teoría estética*, Madrid: Akal.
- ALDEKOA, I. (1993): *Antología de la Poesía Vasca*, Madrid: Visor.
- ALDEKOA, I. (2008): *Euskal literaturaren historia*, Donostia: Erein.
- ARESTI, G et al. (1969): *Euskal elerti 69*, Donostia: Lur.
- ARESTI, G. (1986): *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, Bilbo: Susa.
- ARREGI, M. (1975): *Hego haizearen konpasean*, Donostia: Kriselu.
- ARTZE, J. (1973): *Eta sasi guztien gainetik*, Egilea editore.
- ARTZE, J. (1973): *Laino guztien azpitik*, Egilea editore.
- ARTZE, J. (2007): *Isturizetik Tolosan barru*, Iruñea: Pamiela.
- ATXAGA, B. et al (1975): «Ez dezagula konpostura gal, halare». Literatura aldizkariaren gordailua, <<http://andima.armiarma.com/stel/stel0115.htm>>, [2012/12/18].
- ATXAGA, B. (1983): *Etiopia*, Donostia: Erein.
- BECKETT, S. (1984): *Worstward Ho*, New York: Grove Press.
- BÜRGER, P. (2009): *Teoría de la vanguardia*, Madrid: Las Cuarenta.
- CASTELLET, J.M. (1960): *Veinte años de poesía española*, Barcelona: Seix Barral.
- FRIEDRICH, H. (1974): *Estructura de la lírica moderna*, Barcelona: Seix Barral.
- GABILONDO, J. (2006): *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*, Bilbo: EHU.
- ISER, W. (1978): *The Implied Reader: Patterns of Communication in Prose Fiction from Bunyan to Beckett*, Baltimore: The Johns Hopkins University Press.
- IZAGIRRE, K. (1993): «Txipitasunaren iraultza», in Aristondo, I. et al., *Gaurko poesia*, Bilbo: Labayru.
- IZAGIRRE, K. (2001): «Sarrera», in Lasa, A., *XX. mendeko poesia kaierak*, Zarautz: Susa.
- KORTAZAR, J. (2000): *Euskal literatura XX. mendean*, Zaragoza: Pramés.
- KORTAZAR, J. (2009): *Egungo euskal poesiaren historia*, Bilbo: EHU.
- LANDA, J. (1983): *Gerraondoko poesiaren historia*, Donostia: Elkar.
- LASA, A. (1977): *Hitz nahastuak*, Durango: Leopoldo Zugaza.
- LASA, A. (1979): *Nere paradisetan*, Donostia: Ediciones vascas.
- LASA, M. et al. (1971): *Poema bilduma*, Donostia: Herri-gogoa.
- LASA, M. (1993): *Memory Dump*, Leioa: EHU.
- LEKUONA, J. M. (1975): «Hemen doa gaur», in Arregi, M., *Hego haizearen konpasean*, Donostia: Kriselu.
- MARCUSE, H. (2007): *La dimensión estética*, Madrid: Biblioteca Nueva.
- POE, E. A. et al. (2010): *Matemática tiniebla. Genealogía de la poesía moderna*, Barcelona: Galaxia Gutenberg, Círculo de Lectores.
- SAN MARTIN, J. (1966): «Lete ta Sarasola. Beste bi olerkari gazte gaurkotasunez beterik», *Jakin*, 22.
- SAN MARTIN, J. (1967): «Aitzin-solas», in Lete, X., *Egunetik egunera orduen gurrillean*, Bilbo: Cinsa.
- SAN MARTIN, J. (1970): «“Poemagintza” dala ta, Zotaletari erantzuna», *Kritiken hemeroteca*, <<http://www.susa-literatura.com/kritikak/anaitasuna/krit0004.htm>>, [2013/05/06].
- SARASOLA, I. (1969): *Poemagintza*, Donostia: Lur.
- URRETABIZKAIA, A. (2000): *XX. mendeko poesia kaierak*, Zarautz: Susa.
- VERLAINE, P. (1996): *Poesía*, Madrid: Visor.
- VIÑAS, D. (2011): *Historia de la crítica literaria*, Madrid: Ariel.